

## LAUDIOKO UDALA

### **Laudio Hazi agentziaren logotipoa eta irudi korporatiboa diseinatzeko lehiaketaren oinarriak.**

Laudio Hazi izena ipini zaio Laudioko Toki Garapenerako Agentziari. Laudioko garapen ekonomiko eta sozial iraunkorra sustatzea du helburu, aberastasun ekonomiko eta soziala sortzen duten proiektuak piztuta eta hazkunde lehiakorra babestuta, horrela, Laudioko herritarrek aukera gehiago izan dezaten kalitatezko enplegua lortzeko.

Laudio Hazi Agentziak udalerraren hazkunde ekonomiko eta soziala gidatu nahi du, eta herritarrek eta inguruko enpresek Laudioko bizi-kalitatea eta posizionamendua hobetzeko eragile bultzatzaile gisa aintzatesten dute, inbertsiorako eta proiektu ekonomikoak abian jartzeko leku erakargarri gisa. Hauek dira Laudio Hazi Agentziaren lan-ildo nagusiak:

Gaur egun, Laudio Hazi birbideratze estrategikoko prozesu batean murgilduta dago, eta, prozesu horren ondorioz, beharrezkotzat jotzen da logotipo eta marka-irudi eguneratu eta moderno berria izatea Agentzia identifikatzeko (Laudio Udalarekiko modu bereizian baina koherentean) beste administrazio, erakunde eta enpresa batzuen aurrean, gizarte-ingurunearen, komunikabideen eta, oro har, gizarte osoaren aurrean.

Horretarako, eta herritarren parte-hartzea sustatzeko eta zerbitzuaren irudia diseinatzeko talentu artistikoa erakartzeko, parte hartzeko prozedura ireki bat ezartzen da, bai eta haren ideia hautatzeko modu bat ere, lehiaketa bidez eta epaimahaiaren esku-hartzearekin. Oinarri hauek arautuko dute lehiaketa:

### **OINARRIAK:**

#### **LEHENENGOA. Parte-hartzaileak.**

Lehiaketa publikoa eta irekia izango da, eta adin nagusiko edozein pertsona fisikok parte hartu ahal izango du (edo 16 urtetik gorakoen kasuan, legezko tutoretza duenaren berariazko baimena beharko dute), betiere, jarduteko gaitasun osoa badute eta Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez badute.

Epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, ezta ahaidetasun-harremanak edo bestelako gorabeherak direla eta, epaimahaikideen abstentzioa eragin dezaketen pertsonak ere.

#### **BIGARRENA. Proposamenen ezaugarriak.**

Laudio Hazi Agentziaren logotipoak eta irudi korporatiboak bat etorri beharko dute Agentziaren misioarekin eta lan-arlo nagusiekin (enpresa-sustapena, merkataritza, enplegua, ekintzailtza, etab.), parte-hartzaile bakoitzak nahi duen moduan.

Garrantzitsua da kontuan hartzea logotipoa hainbat formatutan aplikatu beharko dela, hala inprimatutakoetan (idazkiak, gutunak, kartelak, txartelak, etab.) nola online formatuetan (web-orria, bannerrak, sare sozialak, etab.); beraz, diseinuak formatu horietara egokitzeko aukera eman behar du. Egileak konpromisoa hartzen du inprimatzeko zailtasunak izanez gero beharrezkoak diren aldaketekin laguntzeko.

Logotipoan “Laudio Hazi” testua agertu beharko da, eta ez da onartuko testu gehigarri edo desberdinik.

Baztertu egingo dira pertsonen edota erakundeen aurkako konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak edota iraingarriak dituzten proposamen guztiak. Halaber, indarrean dagoen legeriaren aurkakotzat jotzen diren proposamenak ere baztertuko dira.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bi proposamen aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara.

Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute beste ezein egileren lana ez erabiltzeko, ez partzialki ez osorik (adibidez, argazkiak edo diseinu-elementuak); diseinua norberaren ideia batean oinarritu beharko da, jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan beharko da. Jabetza intelektualaren ondorioz hirugarrenekin gatazkarik sortzen bada, proposamena aurkezten duen lehiakidearen erantzukizuna izango da.

### **HIRUGARRENA. Proposamenen edukia.**

Lan guztiak ezizenarekin aurkeztuko dira, parte-hartzaileen anonimotasuna bermatzeko. Identifikazio-ezizen hori aurkeztutako dokumentazio osoan agertu beharko da. Lanak gutun-azal edo bilgarri itxi batean aurkeztuko dira, eta kanpoaldean honako hau bakarrik adieraziko da: **LAUDIO HAZI AGENTZIAREN LOGOTIPOA ETA IRUDI KORPORATIBOA DISEINATZEKO LEHIAKETA / CONCURSO PARA EL DISEÑO DEL LOGOTIPO E IMAGEN CORPORATIVA DE LAUDIO HAZI** eta aukeratutako ezizena.

Gutun-azalaren barruan, hauek aurkeztu beharko dira:

1. Beste gutun-azal itxi bat. Kanpoaldean, parte-hartzailearen goitizena bakarrik agertuko da, eta, barruan, parte-hartzailearen identifikazioa eta harremanetarako datuak (helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, etab.) jasoko dituen dokumentu bat. Baldin eta, gutun-azal horren barruko edukia alde batera utzita, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioan parte-hartzailearen identitatea jakiteko aukera eman dezakeen elementuren bat badago, lehiaketatik kanpo geratuko da automatikoki proposamen hori.

Gorago aipatutako dokumentuan, parte-hartzaileak adierazpena hau ere jaso beharko du, berak izenpetuta:

"Adierazten du:

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Aurrekoa gorabehera, berriazko baimena ematen dio Laudio Udalari inguruabar hori egiaztatzeko, baina lehiaketa honen ondoretarako soilik.

2. Logotipoaren bertsio desberdinak jasoko dituen pendrive bat; koloretakoa, gris-eskalakoa (edo zuri-beltzeko) eta horien aldaerekin. Formatu bektorialean zein bit-mapan aurkeztuko dira, kode irekiko diseinu-programekin manipulatu ahal izateko; beraz, formatu estandarrak erabiliko dira lehentasunez (JPEG, SVG, etab.). Artxibo bakoitzari dagokion aldaeraren izena eman beharko zaio.

3. Logotipoaren memoria, zeinetan jaso beharko diren sortzailearen iritziz obraren sorrera eta esanahia azaltzen edo ulertzen laguntzen duten elementu guztiak (gehienez 5 orrialde).

4. Irudi korporatiboaren oinarritzko eskuliburua: tipografia, koloreak, ohiko nomenklaturaren arabera, papergintza-lanetan (gutunak, dokumentuak, gutun-azalak, bisita-txartelak, etab.), liburuxketan eta

argitalpenetan, web-orrian eta abarretan proposamena aplikatzeko adibideak (nahikoa izango da adibide batzuk jasotzea) nahiz elementuen arteko erlazioa eta kokapena.

### **LAUGARRENA. Proposamenak aurkezteko lekua eta epea.**

Lanak aurkezteko epea 45 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Proiektuak Laudioko udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 16.4 artikuluan aurreikusitako beste bitartekoen bidez.

### **BOSGARRENA. Irudi korporatiboaren eskuliburua.**

Lehiaketaren irabazleak, gehienez ere bi hilabeteko epean garatu beharko ditu eskuliburua eta Udalaren irudi korporatiboko gainerako elementuak, osorik, eta lehiaketara aurkeztutako oinarritzko eskuliburua abiapuntutzat hartuta. Irudi korporatiboa garatzeko prozesuan, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan: logotipo berriaren azalpena, ikus-identitatearen oinarritzko elementuak (logoaren tipografia, koloreak, tamainak), logotipoaren aplikazioa papergintzako elementuei, prentsa idatziari, publizitateari eta sustapen-elementuei, webguneari eta eduki interaktiboei, multimediarri, seinaleztapenari eta beste aplikazio berezi batzuk.

Laudio Udalak aukera izango du hautatutako pertsonari eskatzeko eskuliburuaren garapenean sar ditzala epaimahaiaren azterketaren eta ebazpenaren ondorioz ager daitezkeen iradokizunak, baita deialdia egin duen erakundeak edo egileak berak aurrerago adieraz ditzaketanak ere.

Eskuliburu osoa aurkeztutakoan, epaimahaiaren beste bilera bat deituko da, eskuliburua aztertzeko. Azterketa horretan aztertuko da ea eskuliburua saritutako proposamenarekin bat datorren, osoa den eta atal honetako eskakizunetara egokitzen den. Eskuliburua zuzendu behar izatekotan, hilabeteko epe azken eta bakarria emango da dagozkion zuzenketak egiteko. Behar bezala aurkeztu ondoren, eta epaimahaiaren irizpenarekin bat etorritik, proposamena onartzea eta sariaren bigarren erdia ordaintzea proposatuko da.

### **SEIGARRENA. Epaimahaia eta hautaketa-prozesua.**

Lehiaketaren ebazpena epaimahai tekniko batek hartuko du. Hauek osatuko dute:

- Laudio Udaleko alkate-udalburua
- Laudio Udaleko Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria
- Laudio Udaleko Hiri Garapen Zerbitzuko zinegotzi ordezkaria
- Laudio Udaleko Ekonomia Garapen, Merkataritza eta Enplegu Zerbitzuaren arduraduna
- Udalbatzaren Osoko Bilkuran ordezkari duden alderdi politikoen ordezkari bana.
- Laudioko diseinu grafikoaren eta artearen sektoreko 3 ordezkari, alkate-udalburuak proposatutakoak.

Epaimahaikide bakoitzaren nortasuna alkatearen ebazpen bidez erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea ireki aurretik, eta ALHAO-n, udal webgunean nahiz udalerriko gizarte-komunikabideetan argitaratuko da.

Epaimahaikideek ezingo dute parte hartu.

Epaimahai Teknikoak kalitate- eta originaltasun-irizpideak aplikatuko ditu, baita Audio Hazi Agentziaren misioarekiko egokitze-irizpideak eta logotipoaren esentzia edota irudia galdu gabe hainbat formatutara egokitzeko aukeren ingurukoak ere.

Saria eman gabe utzi ahalko da, baldin eta epaimahaiak uste badu lanak ez direla gutxieneko kalitate-mailara iritsi, edota ez direla jatorrizkoak, edota ez badira behar bezala identifikatzen Audio Hazi Agentziaren balore nagusiekin.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta beretzat gordeko du saria eman gabe uzteko eskubidea, baldin eta aurkeztutako logotipoetako batek ere ez baditu biltzen saria lortzeko beharrezkoak diren merezimenduak.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar, bai eta epaimahaiaren erabakia ere, oinarrietan jasotzen ez den edozein ezustekoren aurrean edo horien interpretazioan sortzen den edozein zalantzaren aurrean.

Hau izango da hautaketa-sistema: epaimahaikide bakoitzak 1, 3 eta 5 puntu emango dizkie proposamenetako hiruri. Epaimahaikide guztien puntuazioa batuko da, eta puntu gehien dituen proposamena izango da irabazlea. Berdinketa gertatuz gero, alkate-udalburuari dagokio erabakia hartzea.

#### **ZAZPIGARRENA. Saria.**

3.000,00 euroko saria emango zaio irabazten duen proposamenari.

Egutegi honen arabera ordainduko da saria:

- Sariaren lehenengo erdia, hau da, 1.500,00 euro, epaia eman ostean. Epaimahaiaren proposamena jaso ostean ordainduko du alkate-udalburuak, epaia eman osteko 30 egun naturalen barruan.
- Sariaren bigarren erdia: 1.500,00 euro, oinarri hauetako bosgarren atalean aurreikusitako Eskuliburua aurkeztu ondoren, Epaimahaiaren proposamenez eta alkate-udalburuaren ebazpen bidez, gehienez ere 30 egun naturaleko epean, Epaimahaiak eskuliburu osoa eta zuzena aurkezteko irizpena ematen duenetik hasita.

Sariaren zenbatekoaren barruan daude ordaindu behar litezkeen zergak; beraz, zergapeko pertsonen kasuan, dagokion P.F.E.Z. atxikiko da.

#### **ZORTZIGARRENA. Jabetza-eskubideak.**

Saritutako lana Audio Udalaren jabetza eskusiboa izango da, eta jabetza intelektualari buruzko legeriak egileari aitortzen dizkion eskubide guztiak transferituko zaizkio, legedi horrek berak egileari ukaezintzat aitortzen dizkion eskubideak izan ezik. Nolanahi ere, saritutako lanaren egileek Audio Udalari bakarrik lagatzen dizkiote, denbora-mugarik gabe eta munduko herrialde guztietarako, horiek ustiatzeko eskubide guztiak, besteak beste, eta ez zehatz-mehatz, aldatzeko, inprimatzeko, argitaratzeko, zabaltzeko eta

komunikatzeko eskubideak, edozein prozedura eta modalitatetan, edozein euskarritan eta beharrezkotzat jotzen den guztietan, oinarri hauetan aurreikusitako helburuetarako.

Era berean, Laudio Udalak irabazleen irudia eta logotipoa egokitu, aldatu eta/edo eguneratzeko ahalmena izango du, beharrezkotzat jotzen duen guztietan, hainbat behar edo egoeratarara egokitzeko.

Organo eskudunak egokitzen jotzen badu, Laudio Udalak saritutako lana eta haren gaineko eskubideak inskribatuko ditu beharrezkotzat jotzen dituen erregistro ofizialetan, hala nola Patente eta Marken Erregistroan edo Jabetza Intelektualaren Erregistroan.

Lehiakideek erantzukizun osoa izango dute hirugarrenek aurkeztutako lanen originaltasunari, antzekoei, kopiei eta abarri buruz aurkeztutako edozein motatako erreklamazioen aurrean.

Laudio Udalaren jabetzakoa izango da lehiaketan onartutako dokumentazio guztia.

#### **BEDERATZIGARRENA. Proposamenak baztertzea.**

Lehiaketatik kanpo geratuko da honako egoera hauetakoren batean dagoen edozein proposamen, epaimahaiaren irizpide apelaezinaren arabera:

- Epez kanpo entregatzea.
- Ez betetzea oinarri hauetan jasotako baldintzaren bat.
- Funtsezko kontraesanak, zehaztugabetasunak edo alderdi ulergaitzak edukitzea.
- Ez egokitzea hertsiki anonimotasun-aginduetara edota aurkezpen-arauetara.
- Epaimahaiaren erabakian eragiten saiatzea edozein bide erabilita.

Baztertutako lanak dagokion aktan jasoko dira, baztertzeko kausak arrazoituta.

#### **HAMARGARRENA. Oinarriak onartzea.**

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarrien erabateko onarpena dakar, baita epaimahaiaren osaketa eta haren epaia ere.

Gainera, lehiaketan parte hartze hutsagatik irabazle suertatzen denak Laudioko Udalari jasotako sari ekonomikoa itzultzeko konpromisoa hartzen du honako kasu hauetan:

- Laudio Udalak ezin erabiltzea irabazleak aurkeztutako logotipoa edo irudia, organo eskudunak plagioa deklaratzearen ondorioz edo beste edozein arrazoitan oinarritutako edozein ebazpen judizial edo administratiboren ondorioz.
- Irabazleak ez baldin badu betetzen inplementatzeko eskuliburua garatzeko betebeharra edo bosgarren oinarrian deskribatutako iradokizunak garatzeko betebeharra. Kasu horretan, sariaren lehenengo erdia itzuli beharko da.

- Irabazleak epearen barruan ez betetzea irudiaren oinarritzko eskuliburua nahiz bosgarren oinarrian aipatzen diren gainerako elementuak garatzeko betebeharra. Kasu horretan, sariaren lehenengo erdia itzuli beharko da.

Irabazleak jasotako diruzko saria itzultzeko betebeharra adierazten bada, Laudio Udalak dagokion espedientea izapidetuko du, interesdunari entzunaldia eginda, eta hilabeteko epea emango zaio betebehara hori betetzeko. Epe horretan borondatez itzultzen ez bada, premiamendu-prozedurari ekingo zaio.

#### **HAMAIKAGARRENA. Oinarriak interpretatzea.**

Epaimahaiak edo Udalak ebatziko ditu oinarri hauetan aurreikusi edo arautu ez diren alderdiak, bai eta oinarri horiek interpretatzea ere, lehiaketa honen ondorioz zalantzak sortzen badira edo bestelako gairen bat sortzen bada. Oinarri hauen benetako interpretazioaren presuntzioa hartuko du erabakiak.

Laudion, 2020ko abenduaren 4a

Alkatea, ANDER AÑIBARRO MAESTRE